

**Arartekoaren 2/2015 Gomendio orokorra, apirilaren 8koa.  
Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra;  
bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman.**

## **I. Aurrekariak**

### ***1.1. Sarrera***

Haurrak dauzkaten eta diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria prestazio ekonomikoak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eskatu dizkioten bizikidetzaren unitate askori eragiten dieten kexa asko izapidetzen ditu Ararteko erakundeak. Prestazioak ukatzeagatik, eteteagatik edota iraungitzeagatik abiarazten dira kexa gehienak.

Erabaki horiek haurrak euren zaintzapean dituzten familiei eragiteak asko kezkatzen du erakunde hau, haurren txirotasunari buruzko datuak kontuan hartzen baditugu, eta horrek haurren formakuntzan eta garapen pertsonalean ekartzen dituen ondorioei erreparatuta; bai eta errelebu soziala hartuko duen etorkizuneko belaunaldi gisa duen inpaktuagatik ere. Herri administrazioek, botere publikoek eta gizarteak oro har haurrei eta nerabeei ematen dieten arreta osasun demokratikoaren, gizarte kohesioaren eta gizartearen arreta bereziaren adierazlea da.

Gomendio orokor honetan, haurren egoeraren azterketa egingo dugu, eta Euskadin haurrek jasaten duten txirotasunari buruzko datuak bilduko ditugu; bai eta bermeen euskal sistemaren transferentzia sozialen eraginak txirotasun tasean murrizketan duen eraginari buruzko datuak ere. Ondoren, haurren txirotasunaren aurkako borroka nazionalaren politiken garapenerako europar markoa aipatuko dugu, baita haurren ongizaterako sustapena ere. Bereziki, Europar Batzordearen 2013ko gomendia: *"Haurrengan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea"*. Aipatu aurrekarien ondoren, aplikatu beharreko marko juridikoari buruzko zenbait gogoeta luzatuko ditugu, eta zenbait gomendio zuzenduko dizkiogu Enplegu eta Gizarte Politika Sailari.

### ***1.2. Haurren txirotasuna Euskadin***

Haurren txirotasun egoerak nabarmen areagotzeagatik kezka aurreko aldiei badagokie ere, erakundearen 2012ko, 2013ko eta 2014ko urteroko txostenetan errealitate horren berri ematen duten datuak eskaini dira (bigarren mailako informazio iturrietatik eskuratutakoak). Laburki, honakoak nabarmenduko ditugu:

*Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunaren inkesta 2012* (PGDI) txostenaren arabera, eta benetako txirotasun adierazleei buruz ari garelarik (hau da, sarrera mailaren urritasunaz gain -arriskuan daude-, egoera horren eta hori oreka dezaketen

edo orekatzen ez duten bestelako elementuen konbinazioa ere kontuan hartzen dutenak), % 9,5ekoa da 2012an EAEn benetako mantenu txirotasun egoeran dauden 15 urtetik beherako biztanleak (% 11,7ra iristen da arriskuan dauden adingabeen zifra), eta % 14,1ekoa da benetako ongizategabezia egoeran dauden adingabeak (% 22,2 daude arriskuan). Adierazle horien datuek argi utzi dute gehikuntza, 2008 urteari dagokionean; izan ere, urte horretan, % 7,4koa eta % 13koa zen haurren txirotasuna, hurrenez hurren.

*Haurren pobrezia Euskal Autonomia Erkidegoan* txostenak, Gizarte Zerbitzuen Behatokiarenak, 2013an zabaldu zenak, aurreko diagnostikoa osatu du. Horren arabera, haurren ongizateari buruzko tasen murrizketa orokortua baino, polarizazio handiagoa ikusi da ongizate egoeran daudenen eta txirotasun arriskuan daudenen artean, eta nabarmenki murriztu da tarteko zerrendaren pisua. Europako errealitatearekin alderatuta, eta ikuspuntu ebolutibotik begiratuta, azken urteotan, EAEn, txirotasun tasak askoz ere gehiago hazi dira, EBko herrialdeen osotasunean baino.

*"Haurren txirotasunaren eskualdeko inpaktua Euskal Autonomia Erkidegoan. PGDI 2012"* txostenetik, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren Estatistika Organoak egindakotik, zera jaso dugu:

- Egoeraren araberako txirotasuna da Euskadiko txirotasun arazoaren profila argien zehazten duena. Haurren txirotasunari buruzko % 9,5 zifra 2,2 puntutan lotu zaio metaketa arazoak egoteari, baina 7,3 puntutan sarreragabeziari (mantenu txirotasunari) lotutako faktoreen berariazko eraginari.
- Egoeraren araberako txirotasun motak gailentzeak neurri batean murriztu du krisiaren eragina: arrisku egoera argian egon arren, haurren % 3,2 dago txirotasunetik kanpo, iraganean euren familiek metatutako ondare-baliabideei esker.
- Egitate horrek ezin gaitzake dagoen arazoa gutxiestera eraman, izan ere: 1) egoeraren araberako txirotasun motak sendotzea, krisi egoeretan eragindako sarreraren gainbeherarekin batera, txirotasun mota larri eta egiturazkoenak areagotzeko eta sendotzeko oinarria da; 2) konparazioz, eskualde jakin batzuetako haurren txirotasunari buruzko tasa baxuek epe ertainera hondatzeko arrisku handia ezkututzen dute.
- Euskadiko haurren txirotasunaren gaurko tasen azalpen faktore erabakigarria da etorkinek txirotasunerako duten arrisku bereizgarria. Atzerriko naziotasuna duen pertsona batek gidatutako etxeetan bizi diren 14 urtetik beherako biztanleen % 46,4k jasaten du benetako txirotasun egoera. Horren arabera, etxe mota horiei dagokie EAEko haur txiroen % 53,3. Proporzio horrek % 60a gainditzen du Gasteiz, Ezkerraldea, Eskuinaldea eta Durangaldea bezalako eskualdeetan.

- Haurren txirotasunak familia nazionaletan duen eragina ere, ordea, adierazgarria da zenbait kasutan. Seme-alabak dituzten bikoteetan tasa % 3koa bada ere, % 33,4koa da guraso bakarreko familietan.
- Beharrian Sozialei buruzko 2014ko Inkestako (aurtengo txirotasun adierazleak eguneratu dituenak) *PGDI-Pobrezia Moduluaren* ondorio nagusia da murriztetik urrun, haurren txirotasuna areagotu egin dela azken bi urteotan, eta gainerako biztanleen artean baino proportzio handiagoan egin duela. Hau da, 14 urtetik gorako biztanleen txirotasun tasa, 2008 eta 2014 artean, 1,4 puntutan igo bada (% 3,7tik % 5,1era), 3,9 puntutan igo da 14 urtetik beherako biztanleen artean (2008an % 7,3koa zen, 2012an % 9,5koa eta 2014an % 11,2koa). Gainera, gizarte desberdintasuna areagotu da.

Horien tasak EAEko batez besteko orokorraren azpitik egoten jarraitzen badu ere, 2012aren eta 2014aren artean, seme-alabak dauzkaten bikoteei dagokie txirotasunaren aurrerapen nabariena, benetako txirotasunaren % 51,9 hartzen baitute. Guraso bakarreko familiekin batera, seme-alabak dauzkaten bikoteek benetako txirotasunaren % 75,5 hartu dute 2014an.

2014an, atzerritar naziotasuna duen pertsona bat buru duten etxeetan bizi diren haurrei eta nerabeei neurri askoz ere handiagoan jarraitzen die eragiten txirotasunak.

### ***1.3. Haurren txirotasuna diru-sarrerak bermatzeko euskal sisteman, eta transferentzia sozialen eragina txirotasun taseen murrizketan***

Lehen aipatutako *Haurren pobrezia Euskal Autonomia Erkidegoan* txostenaren arabera, 2012ko urrian, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuten bizikidetzako unitateen % 26an zeuden 16 urtetik beherako pertsonak.

Urte horretan, Euskadiko transferentzia sozialen sistemak, oro har hartuta, % 58an murriztu zituen adingabeen txirotasun tasak, EB15eko % 75,6aren aurrean. Biztanle guztien kasuan, ordea, alderantzizkoa gertatu zen: Euskadin, transferentzia horien ondorioz, % 67an murriztu zen biztanle guztien txirotasuna, EB15eko % 62aren aurrean. Datu horrek agerian utzi du gizarte-babeserako euskal sistemaren haurren aldeko joera eskasa, beste adin batzuetako taldeekin erakutsi duen gaitasunarekin alderatuta.

Zehazkiago, diru-sarreraren bermeen euskal sistemak berak ahalbidetzen zuen Euskadiko haurren txirotasun tasei eustea, eta sistema horrexek egiten zuen posible europar testuinguruan euskal egoera on samarra egotea. Familientzako irismen handiko prestazio unibertsalen politikarik ez dagoenez, Europako erdialdeko eta iparraldeko herrialdeetan dagoen bezalako, diru-sarrerak bermatzeko errenta zen (eta gaur, da) Euskadiko haurren txirotasun tasei eusteko tresna nagusia.

Horrela, diru-sarrerak bermatzeko errentak, etxebizitzarako prestazio osagarriak eta gizarte behar larrietarako laguntzak % 30ean murriztu zituzten haurren txirotasun tasak Euskadin.

Hala ere, sistemaren eraginkortasuna ez da erabatekoa, eta bere babespetik kanpo uzten zuen eragindakoak izan zitezkeen biztanleen ehuneko handia. PGDIren datuen arabera, hiru talde handitan banatzen zen benetako txirotasun egoeran zeuden eta seme-alabak zituzten familien biztanleria: talderik txikiena -kasuen % 30 irudikatzen zuena- berez benetako txirotasun egoeran egon arren, hain juxtu jasotako prestazioei esker egoera horretatik atera diren familiek osatzen dute. Talde horren % 43k diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemarengandik ere laguntzak jasotzen zituen, baina ez benetako txirotasun egoera gainditzeko adinako zenbatekoa. Bestetik, benetako txirotasun egoeran zeuden familien % 26k, euren egoera hori izanik ere, ez zuen prestazio horietarako sarbiderik eduki. Hortaz, eskatzaileak izan zitezkeen herritarren % 73ra baino ez ziren iristen laguntzak. Azkenik, kasuen % 30ean bakarrik izan ziren guztiz eraginkorrak.

2014ko abendukoa da diru-sarrerak bermatzeko sistemaren estaldura duten hurrei eta nerabeei buruzko daturik gaurkotuena, eta *Euskal Sozialisten Taldeak Enplegu eta Gizarte Politika sailburuari diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaileei buruz egindako galderari emandako idatzizko erantzunean* dago txertatuta. Informazio horren arabera, 18 urtetik beherako 31.414 pertsonak jasotzen zuten data horretan diru-sarrerak bermatzeko errenta, jasotzaile guztien % 26,42 litzatekeena (guztira, 118.887 ziren). Adingabe guztien artean, % 30,74 dira atzeritar naziotasuna duten pertsona titularren bizikidetzaren unitateen parte.

#### ***1.4. Haurren txirotasunaren aurkako nazio politiken garapenerako europar markoa eta haurren ongizatearen sustapena***

2013ko otsailean, Europako Batzordeak [\*Haurrengan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea\*](#) gomendia onartu zuen, Europako herrialde askotan haurren txirotasun eta haurren bazterketa zifrak hazten ari diren unean; normalean, gainerako biztanleen zifren ginetik hazten direnak, gure kasuan bezala.

Hau balioestetik abiatu da gomendia:

- Hurrek eta nerabeek txirotasunerako edo gizarte bazterketarako arrisku handiagoa dute, biztanleria orokorrak baino; txirotasunean edo gizarte bazterketan hazten diren hurrek egoera hori ez duten adinkideek baino aukera gutxiago dauzkate eskolako errendimendu ona izateko, osasun ona edukitzeko eta euren bizitzetako geroko faseetan euren potentzial guztia baliatzeko.
- Desabantailak belaunaldien artean transmititzea saihestea inbertsio erabakigarria da Europaren etorkizunerako, hazkunde adimentsu, jasangarri

eta integrazailerako, eta onurak ekarriko dizkie, epe luzean, haurrei, ekonomiari eta gizarte osoari.

- Esku-hartze goiztiarra eta prebentzioa ezinbestekoak dira politika eraginkorrakoak egiteko; izan ere, haurren txirotasunaren eta gizarte bazterketaren ondorioei eskainitako gastu publikoa handiagoa izaten da adin goiztiarrean esku hartzeko behar dena baino.
- Ondorengo printzipioek gidatuko dituzte jardunbideak: 1) lehenik, haurren interes gorena hartu beharko dute kontuan, eta eskubidedun titular independentetzat jo beharko dira, eta, aldi berean, familiei laguntzeko garrantzia baloratuko da, haurren zaintzaren arduradun nagusiak izaki; 2) haur guztien ongizatea sustatzera bideratutako politika unibertsalen eta behar gehien dituztenei laguntzeko berariazko ikuspegiaren arteko oreka egokia mantendu beharko dute.
- Hiru zutabetan oinarritutako estrategien bidez lortzen da prebentzio eraginkorra: baliabide egokietarako sarbidea, kalitatezko zerbitzuetarako sarbidea prezio eskuragarrietan eta haurrek parte hartzeko duten eskubidea.
- Hurrengo konbinazioa behar dute izan baliabide egokiek: gurasoek lan-merkatuan duten parte hartzea bultzatu (gurasoek lan-merkatuan parte hartzearen eta haurren bizi-baldintzen artean dagoen lotura estua aitortuz), eta bizi-maila egokia ematea, bizitza duinarekin bateragarria dena, prestazioen konbinazio bikainaren bidez.

Azken horiei dagokienez, eta esku artean dugun gaia dela-eta, zera aholkatu du Europako Batzordeak: *“familien diru-sarrerak bermatzea prestazio egoki, zentzuzko eta eraginkorren bidez, zerga-pizgarriekin edo prestazio familiarrekin adibidez, eta, seme-alabak zaintzapean edukitzeagatik, etxebizitza-sorospenaren eta gutxiengo sarreren sistemen bidez” eta “diskrezioa erakustea prestazio familiarrek gurasoen jokaeraren arabera direnean, edota haurren eskolako asistentziaren arabera, eta neurri horien balizko eragin kaltegarria ebaluatzea”*. Hau da, prestazio familiarrek gurasoen jokaeraren arabera direnean, edota haurren eskolako asistentziaren arabera, Europako Batzordeak zuhur jokatzaren alde egin du, kasu bakoitzean neurri horiek eragin dezaketen balizko kaltea ebaluatuz.

## II. Gogoetak

**II.1.** 2014an, Ararteko erakundeak sakontasun bereziz landu ditu familien beharrezkoak eta politika publikoak, bi bitartekoren bidez laguntzeko: Arartekoak Koordinatuzko XXIX. Jardunaldiak, Gasteizen egin zirenak, eta *“Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak”* txosten berezia. Ikerketa eta eztabaida prozesu bi horien ondorioek bat egin dute Europako Batzordeak aurreko ataleko gomendioan burututako printzipio gidariarekin, txirotasunaren eta gizarte

bazterketaren aurkako borroka politiken antolaketari dagokionean: jardunbidea alderdi anitzeko estrategiek egituratu behar dute, eta, horietan, *haur guztien ongizatea sustatzera bideratutako politika unibertsalen eta behar gehien dituztenei laguntzeko berariazko ikuspegi*en arteko oreka egokia mantendu beharko da.

Hala, aipatu txosten berezian jasotako familientzako laguntza-politikentzako erronken artetik, seme-alabak dauzkaten familientzako laguntza ekonomikoan egin beharreko inbertsio publikoei buruzkoak nabarmendu dira, bai eta babesgabetasun egoera handiagoan dauden edo gaineratutako zailtasun objektiboak dauzkaten familiei laguntzeko neurri berezietan sakontzeko beharrari buruzkoak ere. Neurri horiek kostuak orekatzeko politiketarik bertatik artikulatu litezke, edota familiei asko eragiten dieten eskualdeetako politiketarik; **gutxieneko diru-sarreraren edo diru-sarrerak bermatzeko politiken kasua litzatekeena.**

**//.2.** Haurren Eskubideen Hitzarmenak, Espainiak 1990ean berretsi zuenak, bere lehen artikuluetan ezarri ditu haurren inguruan burutzen diren erakundeen jardura guztiak gidatu behar dituzten oinarriko printzipioak. Horien artean, adingabearen interes nagusia nabarmendu da. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (HEH) gure ordenamendu juridikoaren zati da. Aplikatu beharreko legeriari txertatu zaion eskubide subjektiboa da adingabearen interes nagusia; adingabearen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 2. artikulua, eta Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 4. artikulua.

Konstituzio Auzitegiak maiatzaren 29ko 141/2000 Epaian adierazi du [Haurren Eskubideei Buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak \(Espainiak 1990eko azaroaren 30eko Instrumentuz berretsi duenak\)](#) eta Haurren Eskubidearen Europako Gutunari buruzko Europako Parlamentuaren ebazpenak (uztailaren 8ko A 3-0172/1992 Ebazpenak), Adingabearen Babes Juridikoari buruzko [urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoarekin](#) batera, **adingabeen estatutu juridiko xedaezina osatzen dutela nazio lurraldearen barruan**, Espainiako konstituzioak 39. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eta, oso zehazki, bere 4. atalean. Xede horretarako, adingabearen estatusa, zalantzarik gabe, **ordena publikoaren araua da, eta botere publiko guztiek nahitaez behatu beharrekoa** (...).

Haurren Eskubideen Hitzarmena da berau sinatu duten estatuek hitzarmena betetzen dutela egiaztatzeko segimendua egiteko ardura duen organoa, eta berau ezarri beharreko eremu ezberdinetan hitzarmena egoki interpreta dadin orientabideak eskaini behar dituena. Bada, 2013an, [14. Ohar Orokorra](#) egin eta onartu zuen, haurrak bere interes nagusia lehentasunezkoztat jo dezaten duen eskubideari buruzkoa (3. artikulua, 1. paragrafoa).

Ohar orokor horrek haurren interes nagusia kontuan egoki hartzeko betekizunak definitu ditu, eskubidedun titular diren heinean; bereziki, erabaki judizial eta administratiboetan (baita hurrei banaka eragiten dieten bestelako neurrietan ere, eta orokorrean hurrei buruzko edo talde zehatz bati buruzko legeak, politikak,

estrategiak, egitasmoak, aurrekontuak, legegintzako ekimenak, aurrekontu ekimenak eta aginduak onartzeko prozesuen etapa guztietan).

Batzordeak azpimarratu egin du kontzeptu hirukoitza dela adingabearen interes nagusia:

- Eskubide substantiboa: haurrek euren interes nagusia lehentasunezkoztat jo dezaten duten eskubidea, ebaluatu egingo dena eta eztabaidatutako kontu baten gaineko erabakia hartzeko interes desberdinak neurtzean kontuan hartuko dena, eta haur bati, haur jakin batzuen talde bati edo haurrei orokorrean eragingo dien erabaki bat hartu behar den aldiro eskubide hori beti aintzat hartzeko bermea. 3. artikuluko 1. paragrafoak estatuek berez bete beharreko betebeharra ezarri du, berehala aplikatu beharrekoa da (berehalako aplikagarritasuna) eta auzitegien aurrean aipa daiteke.
- Interpreta daitekeen oinarritzko printzipio juridikoa: xedapen juridiko batek interpretazio bat baino gehiago onartzen baditu, haurraren interes nagusia modu eraginkorrean aseko duen interpretazioa aukeratuko da. Hitzarmenean eta horren hautazko protokoloetan sagaratutako eskubideek osatu dute marko interpretagarria.
- Prozedurazko araua: haur jakin bati, haur jakin batzuen talde bati edo haurrei orokorrean eragingo dien erabaki bat hartu behar den bakoitzean, erabakiak hartzeko prozesuak erabaki horrek interesdun haurraren/haurren edukiko dituen ondorio posibleen (aldekoak eta kontrakoak) balioztapena eduki beharko du barnean. Prozedurazko bermeak eduki behar dituzte haurraren interes nagusiaren ebaluazioak eta zehaztapenak. Gainera, erabakien justifikazioak argi utzi behar du berariaz hartu dela eskubide hori kontuan. Zentzu horretan, erabakia hartzea dagokien instantziek azaldu egin beharko dute nola errespetatu den eskubide hori erabakian; hau da, zer jo den haurraren interes nagusitzat, zein irizpidetan oinarritu den erabakia eta nola goratu diren haurraren interesak beste gogoeta batzuen aurrean.

Haurraren interes nagusia kontuan hartzeak haurraren beharrianak egoki goratzea dakar. Hitzarmenak aitortutako eskubide guztiak osoki eta eraginkorki gozatuko direla bermatzea dakar, bai eta bere garapen holistikoa bermatzea ere, haurraren garapen fisiko, mental, espiritual, psikologiko eta sozial gisa hartuta. Ikusten ari ginen bezala, eskubide substantiboa da, interpreta daitekeen printzipio juridikoa eta prozedurazko araua. Horren arabera, haur bati eragingo dion erabaki bat hartu behar den bakoitzean, erabakiak hartzeko prozesuak erabaki horrek haurraren edukiko dituen ondorio posibleen (aldekoak eta kontrakoak) balioztapena eduki beharko du barnean. Erabakien justifikazioak argi utzi beharko du berariaz hartu dela eskubide hori kontuan, eta haurraren interesak zaindu direla beste gogoeta batzuen aurrean.



**II.3. Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak** eta horrek ezarritako prestazio ekonomikoen dekretu erregulatuak; hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta erregulatu zuen maiatzaren 25eko **147/2010 Dekretuak**, etxebizitzarako prestazio osagarria erregulatu zuen **urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuak** eta gizarte behar larrietarako laguntza erregulatu zuen **urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuak**, ez dute pisuzko irizpidetzat hartu adingabearen interes nagusia berriaz. Horrek ez du esan nahi aplikatu behar ez denik. Adierazi dugun bezala, eskubide substantiboa da, interpreta daitekeen printzipio juridikoa eta prozedurazko araua, eta Herri Administrazioen erabaki guztietan txertatu behar da.

Diru-sarrerak bermatzeko sistemari buruzko keak bideratzean, eskubide hori, daukan aurpegi ezberdinetan, kontuan hartzen ari ez dela hauteman du erakunde honek. Araudiak kontuan hartzen du zaintzapean dauden haurrak egotea prestazioaren zenbatekoa ezartzean (147/2010 Dekretuaren 13. artikulua), bai eta bizikidetzaren unitatea balioestean ere (147/2010 Dekretuaren 5.2. c) artikulua), bi urtez mantentzen dena (nahiz eta odol-kidetasunagatik -adierazi den mailetan- izan, edota familia harreragatik harreman iraunkorragatik izan, edo adopzio aurretikoa edo tutoretzakoa izan).

Baina haurrak egotea ez da kontuan hartzen prestazioak eteteko edo iraungitzeko erabakietan. Horren arabera, haurrak zaintzapean dauzkaten familiek oinarrizko beharrezkoak aurre egin ahal izateko diru-sarrerak jasotzeko utz diezaioke, hilabete batzuek edo urtebete ere (18/2008 Legearen 28.3. artikulua, 4/2011 Legeak moldatu ondoren), haurren eskubideetan eta beraien garapen pertsonalean daukan ondorioekin.

Gurasoak edo tutoreak prestazioa jasotzen duen bizikidetzaren unitatea izateko betekizunak betetzeari uzten dion kasuetan, behar besteko baliabideak edukitzean direnean bezala (147/2010 Dekretuaren 8.3. artikulua), adingabearen interes nagusia, berez, ez da larriki kaltetzen. Dena dela, betekizunak bete bai, baina betebeharrak ez betetzeagatik kasuetan (bizikidetzaren unitateei buruzko 18/2008 Legearen 19. artikulua eta 147/2010 Dekretuaren 12. artikulua, eta 2/2010 Dekretuaren 7. artikulua), ziurrenik, ahuldu egiten da adingabearen interes nagusia.

Arartekoaren iritziz, prestazioak eteteko edo iraungitzeko erabakiaren aurretik, gogoan hartu behar lirateke bizikidetzaren unitatean diru-sarrerak jasotzeko uzteak haur horien bizitzari ekarriko dizkien ondorioak.

Zentzu horretan, prestazio bat etetea edo iraungitzea ebaztean, haurren interes nagusia lehentasunez balioetsi ote den neurtu behar luke Lanbideak.

Prestaziorako eskubidea eteteko edo iraungitzeko arrazoia interpretatzean, haurren interes nagusia modu eraginkorrean aiseko duen interpretazioa aukeratu behar luke, Hitzarmenean eta horren hautazko protokoloetan sagaratutako eskubideak errespetatu daitezkeen.



Era berean, prestazioak eteteko edo iraungitzeko erabakia hartzeko prozesuan, erabakiak interesdun haurraren/haurren eduki ditzakeen ondorioen (aldekoak eta aurkakoak) balioztapena egin beharko litzateke.

Gainera, erabakiak justifikatzean, erabaki hori berariaz hartu dela kontuan argi utzi beharko du Lanbidek.

Azkenik, Lanbidek azaldu egin beharko du nola hartu den kontuan eskubide hori ebazpenean, zein irizpidetan oinarritu den erabakia eta nola goratu diren haurren interesak beste gogoeta batzuen aurrean; hala nola, bizikidetzaren unitateko kideren bati betebeharren bat bete ez duela hautematen zaionean, besteren artean, prestazioak iraun bitartean eduki ekonomikodun eskubide edo prestazio bat balioztatzeke betebeharrari dagokiona, edo baliabideen arduradun den administrazioari dagokion betebeharra, edo bat-batean gertatutako egitateak jakinarazteari dagokiona, edo administrazio aurrean agertzeari dagokiona.

Adingabearen interes nagusia aintzat hartzeak ulertarazi dezake ezin direla diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazioa eten edo iraungi.

**//.4.** Horrek ez du esan nahi bizikidetzaren unitatearen betebeharrak ez betetzeak ez duenik ordenamendu juridikoaren neurritzko erantzunik eduki behar adingabeak dauden kasuetan; izan ere, **kontua ez da salbuespen sistema bat sortzea, aurka dauden interesak egoki neurtzea baizik.**

Ondorioz, batetik, prestazioen titular izateko betekizunak betetzen dituzten bizikidetzaren unitateek betebeharrak ez bete izanaren balorazioa egin beharko litzateke. Bestetik, erabakiak haurraren eduki ditzakeen ondorioak balioztatu beharko lirateke. Administrazioak justifikatu egin behar du haurren interes nagusirako eskubidea errespetatu egin dela, erabakia oinarritzeko irizpideak arrazoitu beharko lituzke, eta haurren interesak beste gogoeten aurrean goratzeko modua azaldu.

Arartekoaren ustean, betebeharrak ez betetzeak zigortzeko prozedura ekarri beharko luke. Horrela, kasu horietan, prestazioa eteteak edo iraungitzeak adingabearen interes nagusiarri eragingo diola balioesten den kasuetan, prestazioa ordaintzeko eskubidea mantenduko litzateke, baina beharrezko izapideak egin ondoren, izapidea eragin duen ez-beteatzearekiko proportzionala litzatekeen zigorra hitzartuko litzateke.

Erakunde honek askotan adierazi du diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko betekizunak betetzen diren kasuetan, baina betebeharren bat ez betetzeagatik prestazio ekonomiko horiek eteteko edo iraungitzeko aurreikuspena egoteari buruzko iritzia. Hots, **aurreikuspen horrek**, erakunde honen ustez, **hainbat hutsune dauzka, ez baitu kontuan hartzen proportzionaltasun printzipioa** (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 131.

artikuluak). Kasu horietan, zigortzeko prozedura aurreikusi eta aplikatu beharko litzatekeela uste dugu, betebeharrak ez bete izanari proportzionaltasun printzipioa kontuan hartuz erantzungo liokeena. Balorazio eta proposamen horiek egin arren, ez dugu ikusi gai horretan zigortzeko prozedura aplikatzen ari direnik orokorrean, edo zigorren bat hitzartu denik. Zigortzeko prozedurara ez jotzeko arrazoiek hori aplikatzea ahalbidetuko luketen hobekuntza proposamenak (araudiaren garapena eta abar) eta hausnarketa ekarri beharko litzuzke.

Eteteak edo iraungitzeak zaintzapean adingabeak dituzten familiei eragiten dienean, eta, adingabearen interes nagusirako eskubidea aplikatuz, **diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ez etetea edo ez iraungitzea erabakitzen bada**, Arartekoaren ustez, zigortzeko prozedurara jo beharko litzateke, 18/2008 Legearen 99. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusi bezala, bai eta 147/2010 Dekretuaren 59. artikuluan eta hurrengoetan ere, zeinari etxebizitzarako prestazio osagarria arautzen duen 2/2010 Dekretua erantsi zaion.

Prestazioetarako eskubidea mantenduko litzateke, eta, paraleloki, zigortzeko prozedura hasiko litzateke. Horrela, dagozkion izapideak eginda, eta aurreikusitako bermeen ondoren, dagokion betebeharra ez betetzeagatiko arau-haustearen araberako zigorra ezarri ahal izango litzateke.

Era berean, udal gizarte zerbitzuetara bideratzea aurreikusi beharko litzateke, betebeharra ez bete izanaren gertaera adingabearen egoeratik balora dezaten, eta haurraren intereserako jarduera sozio-hezitzaileei buruzko programak garatzeko egokitasuna aurreikusi beharko litzateke.

Horrela, prestaziorako (edo prestazioetarako) eskubidea mantenduta, zaintzapean haurrak dituzten familiek bermatuta edukiko litzuzkete oinarritzko beharriean aurre egiteko sarrerak, eta erantzun proportzionala emango litzaioke betebeharra ez bete izanari, zigortzeko prozedura hasi ostean. Gainera, beharko balitz, udal gizarte zerbitzuek jarduera sozio-hezitzaileetarako neurri egokiak hartu ahal izango litzuzkete.

Neurri horiekin, Haurren Eskubideen Hitzarmenean aitortutako eskubideak bermatuko lirateke, eta Europako Batzordearen gomendioaren zenbait proposamen beteko lirateke. *"Haurrengan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea"* da gomendio hori, eta aurrekarietan aipatu dugu jada. Gutxiengo sarreren sistemak ekarriko lukeen laguntzari buruzkoa da, eta gurasoen jokaeraren balorazioan zuhurtasuna agertzeari buruzkoa, familiarentzako prestazioak gurasoen jokaeraren araberakoak direnean. Neurri horien eragin negatibo posiblea ebaluatzea dakar horrek.

Azkenik, proposatutako moduan jokatzuz, kontuan hartuko lirateke Arartekoaren 2014ko *Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak* txosten berezian jasotako diagnostikoa eta gomendioak. Horien bidez, gizarte bazterketarako arriskuan dauden familien berriazko beharriean kontuan hartuko litzuzkeen alderdi askoko ikuspuntuaren garrantzia landu da.



Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11. b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arartekoak egoki ikusi du honako gomendio orokorra luzatzea **Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari:**

### GOMENDIO OROKORRA

- Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteari eta iraungitzeari buruzko erabakietan, bizikidetzaren unitatean haurrak daudenean, **adingabearen interes nagusia ebaluatu dadila, interes hori lehentasunezkoztat jo dadila, eta neurtu daitezela prestazioen onuradun diren bizikidetzaren unitatearen kideek (haurren gurasoek edo tutoreek nagusiki) betebeharren bat ez bete izanagatik haustea.**
- Haurrak dauden bizikidetzaren unitateari eragingo dieten ebazpenetan, prestazioak etetea eta iraungitzea erabakitzen denean, **haurraren eskubideetan eta garapenean edukiko dituen ondorioak azaldu eta justifika daitezela.**
- Prestazioak eteteko edo iraungitzeko prozedura batean, adingabearen interes nagusia zaintzeko asmoz, prestaziorako (edo prestazioetarako) eskubidea mantendu behar dela ondorioztatzen denean, **betebeharra ez betetzeari dagokion zigortzeko prozedura has dadila.**
- Haurraren eskubideei edo garapenari eragin diezaieketen zailtasunak hautematen badira haurraren egoeran, **udal gizarte zerbitzuak informa daitezela, jardura sozio-hezitzailearen egokitasunari buruzko balorazioa egin dezaten.**

Eskualdeko politikari eragiten diete gomendio horiek, sarreraren bermeari adibidez; hau da, familien beharrezkoen estaldurari emandako laguntzan eragin handia dutenei. Horregatik, familiei laguntzeko politiken hobekuntzari buruzko hausnarketa zabalago batetik aztertu behar litzateke eremu horretan hartzen den edozein erabaki, Arartekoaren *"Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak"* txosten berezian landu den gaia izanik.